

# Jakiteko eskubidea

Pertsonen eskubideak eta administrazio publikoen  
betebeharrak **ingurumenari buruzko**  
**informazioari** dagokionez

EUSKO JAURLARITZA



GOBIERNO VASCO

INGURUMEN ETA LURRALDE  
ANTOLAMENDU SAILA

DEPARTAMENTO DE MEDIO AMBIENTE  
Y ORDENACIÓN DEL TERRITORIO



Jakiteko eskubidea

<b>Jakiteko eskubidea</b> .....	<b>6</b>
Eskubide eta betebeharrak legetan .....	8
Zer da ingurumenari buruzko informazioa? .....	9
<b>Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea</b> .....	<b>10</b>
Nork du ingurumenari buruzko informazioa emateko betebeharra? .....	11
Zeintzuk dira pertsoneri dagozkien eskubideak? .....	12
Zeintzuk dira agintari publikoen betebeharrak? .....	13
Nola egin ingurumenari buruzko informazioa jasotzeko eskaera? .....	14
Zer egin behar dute agintari publikoek, ingurumenari buruzko informazio-eskabidea jasotzen duten bakoitzean? .....	16
Agintari publikoek beti eman behar dute erantzuna .....	16
Zein da erantzun hori emateko epea? .....	16
Zer gertatzen da eskatutako informazioaren bolumen eta konplexutasuna dela-eta hilabeteko epe hori errespetatzea ezinezkoa denean? .....	16
Informazio hori, eskatutako modu edota formatua ez den beste batean eman daiteke? .....	16
Zer gertatzen da agintari publikoak ez duenean eskatutako informazioa?.....	16
Zer egin behar du agintari publikoak modu desegokian egindako informazio-eskaeraren bat jasotzen duenean? .....	16
Informazioa ukatu daiteke? .....	17



Zein kasutan ukatu daiteke ingurumenari buruzko informazioa? .....	18
Agintari publikoek ingurumenari buruzko informazioaren truk kobratu al dezakete? .....	20
Zer egin dezake eskatzaileak, eskatutako informazioaren inguruan erantzunik jaso ez, justifikatutako arrazoirik gabe ukatu edota modu desegokian erantzunez gero? .....	21
Zer egin daiteke agintari publikoak ingurumenari buruzko informazio eskaerari erantzuna eman ezean? .....	21
Zer egin behar da agintari publikoak ingurumenari buruzko informazio-eskaera ukatu edota horri erantzun desegokia ematen dienean? .....	21
Zer egin behar da agintari publiko horrek ez duenean mailaz goragoko organorik? .....	21
Zer egin behar da erantzunik eza edota erantzun desegokia erakunde pribatu bati egozteko modukoa denean? .....	21
Nola egin behar dira erreklamazioak? .....	22
Administrazio-errekurtsoak .....	22
Epailearen aurreko errekurtsioak .....	23
Arartekoaren aurreko kexak .....	24
Europar Batasunari egindako erreklamazioak .....	26

**Ingurumenari buruzko informazioa zabaltzeko betebeharra** .....

**28**

Zeintzuk dira, agintari publikoek ingurumenari buruzko informazioa zabaltzeari dagokionez, kontuan hartu beharreko betebeharrak? .....	29
Zein da agintari publikoek zabaldu beharreko informazio horren gutxieneko edukia? .....	30

# 1

Jakiteko  
eskubidea



*“Pertsona guztiek dute ingurumen osasungarri bat erabili eta ingurumen horretaz gozatzeko eskubidea; zentzu horretan, Administrazio publikoei dagokie eskubide horren egikaritzea bermatuko duten ingurumen-politika egokiak sustatzea.”<sup>1</sup>*

*“Pertsona fisiko nahiz juridiko guztiek dute ingurumena artatzeko betebeharra.”<sup>2</sup>*

Zerbait zaindu ahal izateko, lehenengo eta behin, ezagutu egin behar dugu; gauza horren inguruko informazioa eduki, alegia.

Gure eguneroko kontsumoaren inguruko erabakiek eta gure jarduera profesionalak zuzeneko nahiz zeharkako eragina dute ingurumenean. **Aukerarik egokiena hautatzeko** behar bezala informatuta egon behar dugu.

Ingurumena zaintzeko orduan pertsona guztiek dute, bai norbanako moduan, bai elkarteen bidez, parte hartzeko eskubidea eta betebeharra, **guztion egitekoa** da-eta. Horrela, ingurumen osasungarri batean bizitzeko eskubideaz gozatu ahalko dugu, hau da, planeta

honetan bizi garenok bizi-kalitate hobea lortuko dugu, bai orain, bai **etorkizunean**.

**Parte hartze** hori gauzatzeko, hala ere, nahi-taetzkoa da alde zuzenetik informazioa eskuragarri izatea: informazio zabala, plurala eta objektiboa.

Ingurumenari buruz zenbat eta informazio gehiago eduki, are eta **sentsibilizazio** sozial gehiago eta parte-hartze publiko handiago bezain eraginkorragoa lortuko da arlo horretan, ingurumen arloan erabakiak hartzeko prozesuei dagokienez. Laburbilduz, zenbat eta informazio oparoagoa izan, are eta ingurumen hobea izango dugu.

<sup>1</sup> EAEko Ingurumena babesteko Lege Orokorraren 3. art.

<sup>2</sup> EAEko Ingurumena babesteko Lege Orokorraren 4. art.

## ESKUBIDE ETA BETEBEHARRAK LEGEETAN

**Aarhus-eko hitzarmena**, 2001eko urriaren 30az geroztik indarrean dagoen nazioarteko hitzarmena da. Horren premisa nagusia honakoa da: ingurumenarekin lotutako arazoengatik inguruan zenbat eta inplikazio eta sentsibilizazio publiko handiagoa izan, ingurumena are eta gehiago babestea lortzen da. Hitzarmenak egungo nahiz etorkizuneko belaunaldietako pertsona ororen eskubideak babesteko laguntza ematea du helburu, osasunerako eta ongizaterako egokia den ingurumen batean bizitzeko aukera emanez. Norbanakoen eskubideak bermatu eta agintari publikoei betebeharrak ezartzen dizkie, honako gaien inguruan: informazioa eskuratzea, parte-hartze publikoa eta justizia atzitzea.

Europako Gobernu guztiek dute **Aarhus-eko Hitzarmenean** eta **Europako Zuzentarauetan** jasotako printzipioak garatzeko betebeharra.

**Edozein pertsonak** eska dezake administrazio eta erakunde publikoen esku dagoen ingurumenari buruzko informazioa, baita funtzio eta zerbitzu publikoak egikaritzen eta eskaintzen dituzten erakunde pribatuen esku dagoena ere. Pertsona orok du ingurumenari buruzko informazioa eskatzeko eskubidea, baita hiritartasun gabekoek edota egoiliarrek ez direnek ere. Pertsona guztiek dute ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko

eskubidea; berdin dio atzerritarra izan edota leku batean zein bestean bizi.

Ingurumenari buruzko informazioa eskatzen duenak ez du zertan adierazi informazio hori eskatzeko arrazoia ezta interesa ere. Era berean, aukeratutako modu edo formatuan eskuratu ahal izango da informazio hori.

Agintari publikoek, ahal dela, eguneratutako informazioa, zuzena eta konparatzeko modukoa eskaini beharko dute. Era berean, eskatzaile bakoitzari informazioa bilatzen lagundu, informazioa emateko aurretiaz ezarritako epeak errespetatu eta, informazio hori ukatuz gero, erabaki horren inguruko arrazoiak azaldu beharko dizkio eskaera egin duenari. Horrez gain, ingurumenari buruzko informazioa zabaltzeaz ere arduratuko dira, interneten bidez ere.

**Ingurumenari buruzko informazioak** barne hartzen ditu, ingurumenaren egoeraren inguruko datuak, ingurumenean eragiten duten jarduerak eta arlo horri buruzko babes-neurriak. Ingurumenari buruzko informazioa da, halaber, ingurumena zaindu eta babesteko beharrezkoa den kostu ekonomikoa, bai eta babes horren ondorioz lortzen diren mozkinak ere. Ingurumena aldatzeak pertsonen osasun eta segurtasunean eragiten dituen efektuak ere arlo horretan sar genitzake.

## ZER DA INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA?

Informazioa edozein euskarri-motatan jaso daiteke, hala nola, argazkiak, bideoak, mapak edota bestelakoak. Informazio hori honako gaien ingurukoa izan daiteke:

- ✓ airea eta atmosfera, ura, lurzorua, lurra, paisaiak eta naturguneak, landaretza eta animaliak, genetikoki eraldatutako organismoak.
- ✓ emisioak eta isuriak, zarata, energia, erradiazioak, hondakinak eta antzeko beste substantzia batzuk.
- ✓ neurri politikoak, arauak, planak, egitasmoak, ingurumen arloko akordioak.

✓ ingurumenean eragina duten (edo izan dezaketen) jarduerak.

✓ txostenak, kostu/mozkin erlazioen analisiak eta izaera ekonomikoko bestelako analisi eta balizkoak.

✓ pertsonen eta ondare historiko, kultural eta artistikoko ondasunen osasuna eta segurtasuna, baldin eta ingurumeneko faktoreek eragina izan badezakete ala izan lezakete.



## Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea



### NORK DU INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA EMATEKO BETEBEHARRA?

✓ Ingurumenarekin lotutako kontsultak egiteko, Udalen, Aldundien edota Eusko Jaurlaritzako ingurumen sailera jotzea da ohikoena; hala ere, badira informazio hori sortu eta emateko gaitasuna duten bestelako administrazio nahiz erakunde publiko eta pribatuak ere. Agintari publiko guztiek dute, beraien jarduera-eremua edozein izanda ere (industria, energia, garraioa, osasuna, nekazaritza edota beste edozein), beraien esku dagoen ingurumenari buruzko informazioa emateko betebeharra.

Beraz, jarraian aipatzen diren **agintari publiko** guztiek dute ingurumenari buruz eskatu zaien beraien mendeko informazioa **emateko betebeharra**, bai eta arlo horretako informaziorik garrantzitsuena **zabaltzekoa** ere:

✓ Eusko Jaurlaritzak eta horren Sail desberdinek. Bere Organo publiko aholku-mailak: Ingurumenerako Aholku Batzordea, Uraren Euskal Batzordea, Naturzaintza, Industria Seguritasunerako Kontseilua, Nekazaritza eta Elikadura Politikako Batzordea, Lurraldearen Antolamendurako Batzordea, etab. Baita erakunde autonomoek, zuzenbide pribatupeko elkarte edo enpresa publikoek eta euskal Administrazioaren partaidetza duten orotariko erakunde eta elkarteek ere.

✓ Foru Aldundiek eta horien Departamentuek. Baita organismo autonomo eta foru izaera duten enpresa publikoek eta horien guztien partaidetza duten partzuergo eta erakunde publikoek.

✓ Udalek eta, aurreko kasuan bezala, organismo autonomoek, publikoek, eta udalen partaidetza duten partzuergo, mankomunitate eta orotariko elkarte eta erakundeek.

✓ Zuzenbide publikoko Korporazioek: nekazaritzako ganberak, kofradiak, kontseilu arautzaileak, elkargo profesionalak, merkataritza, industria eta nabigazio ganberak, ureztatzaileen komunitateak, etab.

✓ Ingurumenari buruzko informazioa duten enpresa edo erakunde pribatuek, baldin eta administrazio publikoren baten aginduz arlo horretan jardun badute. Hori da, esaterako, hornikuntza eta saneamendu enpresen kasua, hondakinak batu eta kudeatzeaz arduratzen diren enpresen kasua, etab.

✓ Gobernu zentralak, Ministerioek, Konfederazio Hidrografikoek, kostamugapenek, portu-agintariek.

## ZEINTZUK DIRA PERTSONEI DAGOZKIEN ESKUBIDEAK?

✓ Agintari publikoen esku dagoen **ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko** eskubidea dugu, inolako azalpenik eman beharrik gabe.

✓ Legeek ematen dizkiguten **eskubideei** eta horiek modu egokian egikaritzeari **buruzko informazioa emateko** eska diezaiekegu. Baita Informazioa bilatzeko **laguntza ere**.

✓ Eskatutako informazioa legeak ezartzen duen gehieneko **epean** jasotzeko eskubidea dugu.

✓ Informazio zein **modu edo formatutan** lortu nahi dugun aukera dezakegu: formatu elektronikoan (Excel, Word, pdf, shape, jpg,...), paperezko kopian, CD bidez, etab.

✓ Informazioa, zati batez edo osorik, ez emateko **arrazoiak** zeintzuk diren jakin dezakegu; baita erantzuteko epea luzatzearen arrazoa edota informazioa eskatutako formatuan eman ez izanari buruzkoa ere.

✓ Jasotako informazioaren truk zenbat eta zein kasutan ordaindu behar dugun jakiteko eskubidea dugu (tasa eta prezio publikoen zerrendaren arabera).

## ZEINTZUK DIRA AGINTARI PUBLIKOEN BETEBEHARRAK?

✓ Legeen arabera pertsonak dituzten eskubideei buruzko informazio egokia ematea, bai eta **eskubide** horiek egikaritzeko bideei buruzkoa ere.

✓ Ingurumenari buruzko informazioa lortu nahi dutenei laguntza ematea eta, ahal den neurrian, horren inguruko **aholkularitza** eskaintzea.

✓ Agintari publikoen zerrenda bat eratzea, bakoitzak duen informazioa kontuan hartuta. Zerrenda horiek publikoak dira, eta gutxienez agintari publiko horiek guztiak bateratzen dituen zerrenda bat egon behar du Autonomia Erkidego bakoitzean.

✓ Informazioa eskuratzeko **Interneten erabilera** sustatzea.

✓ Ingurumenari buruzko informazioaren eskaerak tramitatu eta ebazterakoan **bizkortasun**-printzipioa bermatzea.

✓ Ahal den neurrian, informazioa **eguneratua, zuzena eta konparatzeko modukoa** izan dadila bermatzea.

✓ Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeko eskubidea modu efektiboan egikaritu ahal izateko neurriak hartzea; horien artean, gutxienez, jarraian aipatzen diren neurrietatik bat egon beharko da:

- **Ingurumenari buruzko informazio-zerbitzuak** hornitzea.

- Informazio horren **kontsultarako bideak** sortu eta mantentzea.

- **Erregistroak, ingurumenari buruzko informazioa jasotzen duten zerrendak edota informazio-puntuak** sortzea; horiek, modu argian zehaztu beharko dute non aurkitu daitekeen eskatutako informazioa.

## NOLA EGIN INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA JASOTZEKO ESKAERA

### ✓ Edukia:

- Eskatzailearen **izen-abizenak**, eta jakinarazpenetarako lehenetsi den modua edota helbidea.
- Eskaera: **argia, zehatza eta arrazoizkoa**. Galdera zabal edo orokorrekiak egitea saihestu behar da. Informazio jasotzeko modua edota formatua zehaztu daiteke.
- **Lekua eta data**.
- Informazio-eskatzailearen **sinadura**.
- Eskaera zuzenduta dagoen **organo, zentro edo unitate administratiboa**. Eskaerak ebazteko eskumena duen agintari publikoari igorri behar zaizkio, hau da, **eskatutako informazioaren jabe den erakundeari**.

### ✓ Eskabideak aurkezteko lekua:

- kasuan kasuko administrazio-organotako erregistroak.
- edozein administrazio-organoren erregistroak: Estatuko Administrazio Orokorrekoak, Autonomia Erkidegoetako edozein Administrazioak, edo Tokiko Administrazioa osatzen duten erakunderen batekoak <sup>3</sup>.
- Posta-bulegoetan.
- Espainiak atzerrian dituen ordezkariak diplomatiko edo kontsuletxeetako bulegoetan.
- posta elektronikoz, faxez, Web postontzien bidez, etab.

✓ Idatziz ez ezik, ahoz ere eska daiteke informazioa (telefonoz edo aurrez aurre). Hala eginez gero, zurekin hitz egin duen pertsonaren izena, data, eta zer eskatu den apuntatzea gomendatzen da. Eskabidearen konstantzia uzteko, erabilgarria izan daiteke eskaria ahoz egin ostean posta elektronikoz bat bidaltzea, hitzartu diren baldintzak baieztatuta gera daitezten.

<sup>3</sup> baldin eta, azken kasu honetan, dagokion hitzarmena izenpetu bada



## INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA ESKEITZEKO ADIBIDEA

GASTEIZKO UDALA  
INGURUMEN ETA IRAUNKORTASUN SAILA.

San Prudentzio, 30  
01005 Gasteiz

Ana Agirre, NAN zk: 123456789, eta jakinarazpenetarako posta-elektronikoa:

[ana\\_agirre@sarenet.net](mailto:ana_agirre@sarenet.net)

Honako informazioa ESKATU DU:

- Nire udalerriko zein lekutan utzi ditzaket etxean sortutako hondakin hauek: pilak, aerosolak, erradiografiak, medikamentuak, pintura-hondakinak, kortxo zurizko bilgarriak (poliexpana), DVD eta CD-ak, erabilitako arropa.
- Zer egiten da herritarrok edukiontzi horietan uzten ditugun hondakinekin?

Gasteiz, 2008ko ekainaren 20a.





## ZER EGIN BEHAR DUTE AGINTARI PUBLIKOEK, INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIO-ESKABIDEA JASOTZEN DUTEN BAKOITZEAN?

Agintari publikoek **beti** eman behar dute erantzuna.

### Zein da erantzun hori emateko epea?

Erantzuteko epea, eskabidea eskumendun agintari publikoaren erregistroan jasotzen denetik hasiko da zenbatzen. Ingurumenari buruzko informazioa, **albeit arinen** eman beharko da, hau da, **hilabeteko epean, beranduen jota**.

### Zer gertatzen da eskatutako informazioaren bolumen eta konplexutasuna dela-eta hilabeteko epe hori errespetatzea ezinezkoa denean?

Epea **bi hilabete luzatu** ahalko da; horrez gain, luzapen horren **berri eman**<sup>4</sup> beharko zaio informazioa eskatu duenari, bai eta luzapena justifikatzen duten **arrazoia**k ere.

### Informazio hori, eskatutako modu edota formatua ez den beste batean eman daiteke?

Kasu hauetan bakarrik:

- ✓ Informazioa **dagoeneko** beste modu edota formatu batean **eman denean**, eta hori eskuratzeko errazagoa denean. Kasu horretan, agintari publikoak **eskatzaileari jakinarazi** beharko dio, non eskura dezakeen informazio hori, edota zuzenean igorri beharko dio, eskura dagoen formatuan.

- ✓ Agintari publikoak informazio hori eskatutakoa ez den beste modu edota formaturen batean ematea erabakiz gero, behar bezala **justifikatu** beharko du.

### Zer gertatzen da agintari publikoak ez duenean eskatutako informazioa?

Informazio hori duen agintari publikoari eskaria **igorri**, eta horren berri eman beharko dio eskatzaileari.

Hori egitea ezinezkoa denean, **zuzenean eskatzaileari informatu**, eta eskatutako informazioa lortzeko zein agintari publikorengana jo behar duen esan beharko dio.

### Zer egin behar du agintari publikoak, modu desegokian egindako informazio-eskaeraren bat jasotzen duenean?

Agintari publikoak, **ahalik eta lasterren** eta, gehienez jota, hilabeteko epea agortu aurretik, eskatzaileari eskaera **zehazteko** eskatu eta horretarako laguntza emango dio.

### Informazioa ukatu daiteke?

- ✓ **Arau orokorra** informazioa **zabaltzearen aldekoa** izan behar da. Agintari publikoek, modu argian zehaztutako kasu konkretuetan baino ezingo dute ukatu ingurumenari buruzko informazioa.

- ✓ **Interes publikoek** nagusitu behar dute interes pribatuen gainetik.

- ✓ Ezin daiteke ingurumeneko **emisioei** buruzko informazio-eskaerarik ukatu.

- ✓ Ingurumenari buruzko informazioa **zati batez** emango zaio eskatzaileari, baldin eta eman beharreko informazioa bereizteko moduan badago, hau da, ukatutakoa eta gainerakoa.

Edozein kasutan ere, agintari publikoek **ahalik eta lasterren** eta gehienez **hilabeteko epean** jakinarazi behar diote eskatzaileari eskatutako informazioa ukatu egin zaiola, osorik edo zati batez; era berean, **uko horren arrazoia**k ere eman beharko zaizkio.

Jakinarazpena idatziz edota elektronikoki egingo da, baldin eta eskaera idatziz egin bada, edo hala eskatu bada. Jakinarazpenean **errekurtsoa jartzeko prozedurari** buruzko informazioa ere jaso beharko da.

<sup>4</sup> hilabeteko epean

## ZEIN KASUTAN UKATU DAITEKE INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA?

✓ Eskatutako informazioa ez dagoenean agintari publikoaren edota horren mendeko beste erakunderen baten esku.

✓ Eskaera **ez denean arrazoizkoa**, esaterako, eskatutako informazioaren bolumenak administrazio-zerbitzuak kolapsatzen dituenean.

✓ Eskaera **orokorregia bada**, hau da, eskatzaileari aholku eta laguntza emateko ahaleginak egin arren, agintari publikoak eskatutako informazioa zein den zehazki identifikatzeko arazoak dituenean.

✓ Eskaera **prestatze bidean dagoen materialari edota bukatu gabe dauden dokumentuei** buruzkoa bada: agintari publikoa **aktiboki lantzen** ari den zirriborroak, behin-behineko datuak, etab. Ukoa arrazoi horretan oinarritutakoa bada, uko horren jakinarazpenean adierazi beharko da zein den material hori prestatzen ari den agintaria; era berean, prestaketa hori bukatzeko **aurreikusitako denbora** ere jakinarazi beharko da. Esaterako, zentral nuklear batean egindako ikuskaritzaren emaitza ez da prestatze bidean dagoen dokumentua, informazio osoa baizik; horrela ebatzi dute Auzitegiek.

✓ Eskaera barne-komunikazioei buruzkoa denean, emandako informazioaren interes publikoa handiagoa denean salbu.

✓ Eskatutako informazioa emateak honako gain eragin negatiboa izan dezakeenean:

- **Jabetza intelektual eta industrialeko eskubideak:** patenteak, merkataritzako markak, diseinuak, copyright.
- **merkataritzako eta industriako izaera duten datuen konfidentziasuna:** industriako sekretuak, sekretu estatistikoak, sekretu fiskala.
- **Datu pertsonalen** izaera konfidentziala<sup>5</sup>: helbideak, kaltetuen izenak, NAN, etab.
- Informazio horren bidez beste pertsona baten eskubide eta interesak kaltetzen direnean, **borondatez** eman denean, betiere. Norbanakoek agintari publikoei nahitaez eman beharreko informazioa beti izango da eskuragarria.
- Eskatu den informazioak aipatzen duen **ingurumenaren babesari** kalte egiten dionean. Modu berezian, mehatxupearan dauden espezieen kokalekuari edota espezie horien ugalketa-lekuei buruzkoak.
- Agintari publikoen prozeduren **konfidentziasunari**, konfidentziasun hori **Lege-mailako** arau batean aurreikusita dagoenean.
- **Prozedura judizial** bati lotuta dauden auziei, edota epaitegietan izapidetze bidean daudenei.
- **Nazioarteko harremanei, defentsa nazionalari edota segurtasun publikoari.**

<sup>5</sup> 15/1999 Lege Organikoan araututa dagoen bezala

## AGINTARI PUBLIKOEN INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOAREN TRUK KOB-RATU AL DEZAKETE?

✓ Bai, baina kobratzen den zenbatekoa ar-ra-zoizkoa izan behar da. Horren arabera, eta arau orokor gisa, kobratzen den zenbatekoak ez du gainditu behar materiala produzitzeko kostu-errealari dagokion zenbatekoa.

✓ Agintari publikoek jendearen eskura jarri beharko dituzte ingurumenari buruzko infor-mazioa eskatzeagatik **tasa, prezio publiko nahiz pribatuen zerrenda**, bai eta ordaindu beharrik ez dagoen kasuak ere.

✓ **Zerrenda edo erregistro publikoak** (agin-tari publikoen zerrenda, agintari publikoen esku dauden ingurumenari buruzko infor-mazio-zerrendak edo erregistroak, edota infor-mazio puntuak) ikustea **doakoa** da, bai eta eska-tutako informazioa **in situ aztertzea** ere.



## ZER EGIN DEZAKE ESKATZAILEAK, ESKATUTAKO INFORMAZIOAREN INGURUAN ERANTZUNIK JASO EZ, JUSTIFIKATUTAKO ARRAZOIRIK GABE UKATU EDOTA MODU DESEGOKIAN ERANTZUNEZ GERO?

Erreklamazioak egin daitezke administrazio publikoen aurrean, epaitegietan, Arartekoari, Europako Parlamentuan eta Europako Batzordean.

### Zer egin daiteke agintari publikoak ingurumenari buruzko informazio eskaerari erantzuna eman ezean?

Eskatutako informazio hori emateko betebeharra duen agintari publiko baten aldetik berariazko erantzunik egon ezean, **administrazio-isiltasun bidez onartu** dela ulertuko da. Isiltasun horrek, beraz, pertsona horri informazioa jasotzeko eskubidea aitortzen dio. Eskubide hori egikaritzeko, dagozkion prozedura judizialak erabili, eta zuzenean jo ahalko du administrazioarekiko auzien jurisdikzioko Epaitegien aurrera<sup>6</sup>.

### Zer egin behar da agintari publikoak ingurumenari buruzko informazio-eskaera ukatu edota horri erantzun desegokia ematen dionean?

Eskatzaileak agintari publikoen aldetik erantzuna jaso arren, erantzun horri desegokia deritzon, **gora jotzeko errekurtsua**<sup>7</sup> jarri dezake, bai zuzenean erantzuna eman zuen organoaren aurrean, bai zeharka mailaz goragoko organoaren aurrean. Errekurtsuaren ebazpenarekin ados ez badago edota ebazpena epe barruan ematen ez bada, eskatzaileak **administrazioarekiko auzibidera**<sup>8</sup> jotzeko aukera izango du.

### Zer egin behar da agintari publiko horrek ez duenean mailaz goragoko organorik?

Erantzuna (edota erantzunik eza) errekurritzeko modukoa da, bai zuzenean **administrazioarekiko auzibidera**<sup>9</sup> jota, bai **aukerako berraztertze-errekurtsua**<sup>10</sup> jarriz informazioa eskatu zitzaion organo beraren aurrean. Azken errekurtsu hori hilabeteko epean ebatzi eta jakinarazi beharko da; behin epe hori igarota, eta ez lehenago, jo ahal izango du eskatzaileak auzibidera.

### Zer egin behar da erantzunik eza edota erantzun desegokia erakunde pribatu bati egozteko modukoa denean?

Erakunde pribatu horrek funtzio publikoak egikaritzen baditu, edota administrazio publiko baten agintaritzapean ingurumenarekin lotutako zerbitzu publikoak ematen baditu, erreklamazioa jarri ahal izango da aipatu administrazioaren aurrean.

<sup>6</sup> 29/1999 Legea, 29 art.

<sup>7</sup> Errekurtsua jartzeko hilabeteko epea dago erantzuna jasotzen den hurrengo egunetik hasita, eta jartzen denetik hurrengo hiru hilabeteen barruan ebatzi eta jakinarazi beharko da.

<sup>8</sup> Hurrengo bi edo sei hilabeteen barruan, ebazpena ezezkoa izan bada edo ebazpenik eman ez bada.

<sup>9</sup> Hurrengo bi edo sei hilabeteen barruan, berariazko erantzunik izan den edo ez kontuan hartuta.

<sup>10</sup> Hilabeteko epean.

## NOLA EGIN BEHAR DIRA ERREKLAMAZIOAK

### Administrazio-errekurtsoak

Administrazio-errekurtsoek **ez dute kostu ekonomikorik**, eta **epe laburrean ebatzi** beharrekoak dira. Hala ere, administrazioa bera da ebazpena ematen duena; ondorioz, ezin daiteke organo horren neutraltasuna eta independentzia guztiz bermatu. Bestalde, **administrazio-errekurtsoak nahitaez bete beharreko baldintzak dira, epaitegietara jo nahi izanez gero.**

Errekurtso bat jartzeko nahikoa da idazki soil bat egitea; honakoak jaso behar dira bertan:

- Errekurtsogilearen izen-abizenak, eta jakinarazpenetarako lehenetsi den modua edota helbidea.
- Errekurtsoaren edukia eta aurkezteko arrazoia.
- Lekua eta data
- Zein organori zuzenduta dagoen: eskaera egin zitzaion organoari edota horren mailaz goragoko organoari zuzendu dakioko.

### Epailearen aurreko errekurtsoak


Epailearen aurreko errekurtsoek **kostu ekonomikoa** izaten dute eta luzeak izan ohi dira. Hala ere, badute abantaila bat: instantzia **independente** baten aurrean aurkezten direla, alegia. Administrazioarekiko auzibidean jarduteko, kasu honetan, **abokatuaren eta prokuradorearen** ordezkaritza behar dira. Administrazioarekiko auzibidean errekurtsoa jartzeko epea **bi hilabetekoa** da, administrazio bidea agortzen denetik zenbatzen hasita.

**Arartekoaren aurreko kexak**

Dagokion administrazioaren aurrean **erreklamazioa** jarri eta **erantzunik edo irtenbiderik lortzen ez bada**<sup>11</sup>, Arartekoarengana jotzeko aukera dago. Euskal Herritarrak Defendatzeko instituzio independente eta doakoa da, eta herritarrak erakunde publikoen aurrean defendatzea du helburu. Arartekoak dagokion azterketa egiten du, Herri Administrazioek abusu, arbitrariotasun, diskriminazio, akats nahiz hutsegiteren bat egin duten ala ez ikusteko; horrez gain, herritarren eta administrazioaren arteko bitartekari lanak ere egiten ditu.

Arartekoaren aurrean kexa jartzeko, datu pertsonalak eman behar dira (izen-abizenak, helbidea, telefonoa), baita erabilgarriak izan litezkeen dokumentuen kopiak ere. Horrez gain, eta posible denean, kexa arrazoitzen duen idazki bat ere aurkeztu beharko da, gutun baten bidez, faxez, internet bidez ([www.ararteko.net](http://www.ararteko.net), on-line inprimakia), posta elektronikoz edota norbera bertara joanda.

<sup>11</sup> Urtebeteko epean.



**Europar Batasunari egindako erreklamazioak**

Ingurumenari buruzko informazioa eskuratzeari dagokionez, bai Estatuko legeriak bai Autonomia Erkidegoetakoek Europako Zuzentzauei erreferentzia egiten dietenez, Europako herritarrek eta Europako Estatu kideetako egoiliarrek europar zuzenbideak arlo horretan ezarritako kontrol-bideak ere erabili ahalko dituzte.

**Europar Parlamentuaren aurreko eskaria**

Eskari horrek Europar Batasuneko hizkuntza ofizialtako batean idatzita egon, eta ahalik eta informazio gehien jaso behar du, azaleko aipamenak alde batera utziz betiere. Idazteko moduak argia eta ulerterraza izan behar du. Posible da, egoki ikusiz gero, laburpen bat atxikitzea ere.

Paperezko eskaera bat zuzenean aurkeztu nahi izanez gero, ez da inolako inprimakirik bete behar. Gainera, ez dago zertan erabili aurrez ezarritako inprimaki-eredurik ere.

Hala ere, eskaerak honako baldintzak bete beharko ditu:

- izen-abizenak, naziotasuna eta helbidea eduki beharko ditu (eskaera kolektiboen kasuan, eskaria aurkeztu duen edota lehenengo sinatu duen pertsonaren izena, naziotasuna eta helbidea), eta
- sinatuta egon behar du.

Eskaerak eranskinak ere eduki ditzake, eskatzaileak eskura dituen justifikatzeko agirien kopia, hain zuzen ere.

Eskaera honako helbide honetara bidali beharko da:

**European Parliament**

The President of the European Parliament  
Rue Wiertz  
B-1047 BRUSSELS

Bide elektronikoa ere erabili daiteke (inprimaki elektronikoa).

<http://www.europarl.europa.eu/parliament/public/staticDisplay.do?id=49&pageRank=3&language=ES>

Ez denez inolako epaitegia, Europako Parlamentuak ez du ez epaiak emateko eskumenik, ez eta Estatu kideen erabaki judizialak ezeztatze ahalmenik ere.

**Europako Batzordearen aurreko Kexa edo Salaketa**

Europako Erkidegoa eratzeko Itunaren arabera, Estatu kideen artean Europar zuzenbidea modu egokian aplikatzea da Europako Batzordearen egiteko nagusia. Batzorde horrek Estatu kideen aldetik izan daitekeen arau-hauste oro detektatzen du, Europar Zuzenbideari dagokionez; organo horrek, izan ere, zaintza-eginkizuna betetzen du.

Estatu kideren batek Europar Zuzenbidea hautsi duela uste izanez gero, edozein pertsona edota enpresak jar lezake erreklamazioa Batzordearen aurrean, salatutako arau-haustea zuzenean eragiten diola frogatu beharrik gabe.

Erreklamazioak dohainik aurkezten dira, inolako abokaturen laguntzarik gabe. Erreklamazioa egitean, dagokion informazio eta agiri guztiak aurkeztu behar dira. Batzordeak urtebeteko epea izango du erreklamazioa izapidetuko duen ala ez erabakitzeke. Salaketa jarri duenak ez du prozesuan parte hartuko; beraz, ezingo du kontrako errekurtsorik jarri Batzordeak hartutako erabakiaren kontra; ez eta Batzordeak inongo erabakirik hartzen ez duen kasuetan ere. Horrez gain, ez du entzuna izateko eskubiderik ere izango.

Batzordean honako bideetatik aurkeztu daitezke erreklamazioak:

- idatziz, honako helbidean: Europar Erkidegoko Batzordea ( Idazkari Nagusiari zuzendua ) 200, Rue de la Loi Brusela B-1049;

- Estatu kideen Batzordeko bulegoetan eskuratu daitekeen inprimaki-ereduaren bidez, edo

- posta elektronikoa erabiliz:

[SG-PLAINTES@ec.europa.eu](mailto:SG-PLAINTES@ec.europa.eu).



# 3

Ingurumenari buruzko informazioa  
zabaltzeko betebeharra



## ZEINTZUK DIRA, AGINTARI PUBLIKOEN INGURUMENARI BURUZKO INFORMAZIOA ZABALTZEARI DAGOKIONEZ, KONTUAN HARTU BEHARREKO BETEBEHARRAK?

- ✓ Agintari publikoek ingurumenari buruzko informazioa zabaltzeko eta herritarren esku jarri behar dute, **ahalik eta modu argi eta sistematikoenean**.
- ✓ Horretarako, ingurumenari buruz garrantzizkoa den informazio guztia **antolatu eta eguneratu** behar dute, jendearentzako erabilerrazak diren **datu-base elektroniko**en bidez (Internet bidez, esaterako).
- ✓ **2003ko otsailaren 14az geroztik** bildutako datu guztiak zabaltzeko behar dira. Data horren aurreko datuak formatu elektronikoan daude baino ez dira barne hartuko.

## ZEIN DA AGINTARI PUBLIKOEN ZABALDU BEHARREKO INFORMAZIO HORREN GUTXIENKO EDUKIA?

✔ Nazioarteko itun, hitzarmen eta akordio-en testuak, eta ingurumenarekin zerikusia duten Europar Erkidegoko, Estatuko, Autonomia Erkidegoko nahiz Toki mailako legerietako testuak.

✔ Ingurumenarekin lotutako politika, egitasmo eta planak, eta horien ingurumen-ebaluaketak ere bai.

✔ Ingurumenari buruzko legegintzan edota politikan izan diren aurrerapausoei buruzko txostenak.

✔ Ingurumenaren egoerari buruzko txostenak. Urtean behin, gutxienez, koiunturari buruzko txostena; eta lau urterik behin, berriz, txosten osoa. Txosten horiek estatu nahiz autonomia erkidego mailakoak izango dira nahitaez, toki mailakoak izan badaitezke ere. Ingurumenaren kalitateari buruzko datuak barne hartu behar ditu, bai eta jasaten duen presioari buruzkoak ere. Herritarrek ulertzeko moduko laburpen ez tekniko bat ere prestatu behar da.

✔ Ingurumenean eragina duten jardueren jarraipenetik eratorritako datuak.

✔ Ingurumenean efektu esanguratsua duten baimenak, eta ingurumenaren arloan hartutako akordioak. Halakorik ezean, informazioa eskatu daitekeen lekuari buruzko erreferentzia.

✔ Ingurumen eraginari buruzko azterlanak eta arriskuen ebaluazioak, ingurumenarekin zerikusia duten elementuei dagokienez. Halakorik ezean, informazioa eskatu edo aurkitu daitekeen lekuari buruzko erreferentzia.

Gizakiaren jardueren edota kausa naturalen ondorioz pertsonen osasuna edota ingurumena bera arrisku larrian egonez gero, Administrazio Publikoek berehala zabaltzea behar dute eskura duten informazio guztia; horrela, kalteak jasan ditzaketen herritarrek, mehatxu horren ondorioz erator litezkeen kalteak prebenitu edota mugatzeko beharrezkoak diren neurriak hartu ahalko dituzte.

